



Iturbegoitia (-a) etxebizitza

Aldacerak: Txopena

Ahozkoa: Itúrboti / Txopéna



43° 11' 30"

2° 36' 3"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

“... la casería rústica titulada Yurbegoitia... situada en la barriada de Sarria... que comprende con su zaguan y horno ciento setenta y un estados cuadrados superficiales de planta solar, y la que se compone de una vivienda con piso bajo y alto a manera de entresuelo...”

DJE, 1/185 or. (1864)

Bizitza biko baserri honen gaineko lehen aipu dokumentala XVII. mendearen erdialdekoa da, hots, *Yturbe Goitia* (1648, BAHP, A410/32.). Mendeetan zehar, izen horrek aldaketa gutxi jasan ditu, eta batzuetan banatuta idatzirik agertzen bada ere, XIX. mendetik aurrera ia guztietan batuta agertzen zaigu: *Yurbegoitia* (1789, BAHP, A317/4.), *Yurbegoitia* (1792, BAHP, A486/33.), *Yurbegoitia* (1825, PE/1825.), *Yturbe goiti* (1905, BUA, 40) eta 1967ko erroldan aurkitzen dugun *Iturbegoti*. Auzotarren artean, ahozko transmisioan *Itúrboti* forma erabiltzen da. Bertakoek *Txopéna* ere esaten diote.

Etxe ederra dugu, ederrago oraindik eraberritu ondoren. XVIII. mendekotzat hartzen bada ere, XVII. mendean egiten zirenen antzekoa da, baina ezkeraldeko silarriak zaharragoaren adierazle dira. Azpimarragarria da eraikina hiru gorputzetan berezita egotea, azkeneko

erreformaren ostean bistan geratu den moduan, baita ondoan gehitutako aldea ere. Etxeak pisu bi eta ganbara ditu eta sarrera erdialdeko atarteak markatzen du, egurrezko dinteluna berau, egurrezkoak diren moduan leihoburu guztiak. Egin dioten erreforman baoak ordenatu eta modu bertsuan zabaldu dituzte, eta etxearen ganbara aldeko zurezko pareta zaharra ere kendu egin diote. Nabarmentzekoa da, halaber, kantal guztietan harlandua baliatu izana ertzak egiteko, harlangaitza erabili zutelako gainontzeko hormetarako eta arestian aipaturiko silarriak ezker aldean. Materialekin bukatzeko, erdialdeko gorputzean ikusten denak *Lazpitagoikorekin* (**Ikus Lazpitagoikoa**) du lotura. Izan ere, dintelaren gainean harlangaitza dago eta honen gainean, zurezko egitura eta adreiluzko hormak aitatu behar ditugu, zeinetan zabaltzen diren leihoak. Isuri biko teilatua dauka.

toponimia

*Izenak berak dioten bezala Iturbe etxe multzoan goiko aldean dagoen etxea. Bizkaian ohikoak dira auzo-izena+etxearen ezaugarria egitura duten izenak eta horregatik Bizkaikoak dira deiturarik luzeenak Euskal Herri osoan. Goitia “goikoa” zaharragoa da goieaskoa eta goikoa baino, eta sarritan (**Ikus Iturbazpikoa**) bata bestea ordezkatu du.*